


Euskal AEko BPG %2,6ko urte arteko tasaz gehitu da 2018ko hirugarren hiruhilekoan

Enpleguaren bilakaera positiboa mantendu da, %2,0ko hazkundearekin

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) %2,6ko hazkundera izan du 2018ko hirugarren hiruhilekoan urte artean, urtaro- eta egutegi-eraginak erauzirik, Eustaten aurrerapen-datuaren arabera. Hazkunde hori hiru hamarren txikiagoa da 2018ko bigarren hiruhilekoan izandakoaren aldean.

Aldakuntza-tasa %0,5ekoa izan da aurreko hiruhilekoaren aldean. Hiruhilekoen arteko hazkunde hori aurreko hiruhilekoko baino hamarren bat txikiagoa da.



Eskaintzaren ikuspegitik, 2018ko hirugarren hiruhilekoan izandako urte arteko eta hiruhileko arteko hazkundera izan da eragindakoa nagusiki zerbitzuen eta eraikuntzaren agregazio-portaera onak, zeinek neurri handian orekatu dituen lehen sektoreak erakutsitako ahulezia eta industriak izan duen dezelerazioa.

Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan, %2,0 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, aurreko hiruhilekoko hazkundearekiko hamarren bat gutxiago.

Hiruhilekoen arteko hazkundera %0,4koa izan da, aurreko hiruhilekoko hazkunderarekiko bi hamarren gutxiago.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62